

Erreniega Ikastetxeko gurasoek ere ikasten dute euskara zentroan

Zizur Nagusiko Erreniega Ikastetxeko guraso talde bat euskara ikasten ari da otsailaz geroztik zentroan bertan. Zubiarte euskaltegiak eskaintzen du hastapeneko ikastaro hau astean sei orduz. Gurasoak ahalegin handia egiten ari dira beraien seme-alabentzat aukeratu duten hizkuntzan moldatu ahal izateko. "Al revés"-ek Hots Gurasoak guraso elkarteko Dulce Urzainkirekin eta Zubiarteko irakaslea den Karlos Lizoainekin hitz egin du.



Dulce Urzainki Hots Gurasoak Erreniega Ikastetxeko guraso elkarteko kidea da. Nafarroako Gobernuarena den Zubiarte euskaltegiko ikaslea, berak eman zituen proiektu honen lehen pausok.

Nola sortu zen ideia?

Duela urte batzuk baze- goen guraso talde bat AEKrekin euskara ikasten zebilena. Iaz berriro ere proposatu zen ikastaroa eskaintzea, baina ez zen aurrera atera. Nik interesa banuen eta Zubiarten matrikulatu nintzen, Huarten. Penaz gelditu ginen Zizurren ikastaroa

atera ez zelako, eta nik proposatu nien aurten berriro ere saiatzea Zubiarterekin.

Zubiarteko ikasketa buruarekin hitz egin nuen eta esan zidan lehenengo pausoa taldea sortzea zela, euskara ikasten has- teko interesa zuten gura- soak aurkitzea. Eskolako familia guztiei paper bat bidali genien gurasoentzat euskara ikastaro bat anto- latzeko aukerari buruz informazioa emanez, pre- zioekin, ordutegiekin... Interesa zuten gurasoak erantzuten joan ziren eta 20tik gora izan genituen- an (otsailean) berriro hitz

egin nuen Zubiarteko ikas- keta buruarekin. 18 inguru matrikulatu ziren hastapen mailan, A1ean.

Bestalde, Erreniegako zuzendaritzarekin hitz egin behar izan nuen gela bat utzi ziezaguten, eta ez zen arazorik izan, alderantziz, dena erraztasunak izan ziren.

Noiz eskaintzen da ikastaroa?

Zubiarten ikasturtea irai- lean hasten da, baina otsailean beste bat hasten da. Guk azken honi heldu genion. Ekaina arte irauten du. Datorren ikasturtean irailetik hasiko gara.

Orduan A1+ edo A2 maila eskainiko da eat otsailean A2. Oraindik ez dago argi, ikasturte honetan lortzen den mailaren arabera izango baita. Ordutegia arratsaldean da, astelehe- netik ostiralera, 15.00eta- tik 16.30era, eta asteazke- netan libre.

Zubiarte Nafarroako Gobernuaren euskaltegia denez, ikastaroa diruz lagunduta dago: 45,60€-ko kostua du (22,80€ familia ugarientzat) ikaslea berria denean; eta 22,70€ (11,35€ familia ugarient- zat) ikasle zaharra bada.

Karlos Lizoain, zizurtarra

Zabal
comunicación

KOMUNIKAZIOAREN
ALORREKO PROFESIONALAK

-Argitaratze-lanak: eskakizunetara egokituriko argitalpenak

-Publizitatearen diseinu eta maketazioa

-Web guneen sortze eta eguneratzea

-Era guztietako gertakizunen argazki bidezko estaldura

-Argazki digitalen tratamendua

Zabalgaina kalea, 5. 2 bulegoa E-mail: zabalcomunicacion@zabalcomunicacion.com
31180 ZIZUR NAGUSIA Telefonoa: 948 077 886 www.zabalcomunicacion.com

bera, Zubiarteko irakaslea da eta bera da Erreniegan eskolak ematen dituena.

Nola eskaini zizuten talde honen irakaslea izatea?

Zubiarte euskaltegiko irakaslea naiz eta urtarrila amaieran egin ohi dugun banaketan, euskaltegiko zuzendaritzak jakinarazi zidan bazegoela Zizurko Erreniega Ikastetxean, euskaltegian matrikulatu zen guraso talde bat. Zizurkoa izanik, segituan eman nion baiezkua taldeari.

Nolakoa izaten ari da esperientzia?

Niretzat esperientzia ez da berria, guraso talde gehiago izan baititut. Hala ere, oso pozik nago, denak gogotsu daude eta oso ongi lan egiten dute. Egutero eskolara etortzen saiatzen dira eta planteatzen dizkiegun aktibitate guztiak egiten dituzte, gogo handiz. Taldearen aurrerakada garrantzitsua da; ia zerotik hasten zarenean, eta hau da kasua, egutero gauza ugari ikasten dira eta hori oso motibatzailea da. Gainera, pixkanaka, euren seme-alabekin ere praktikatuz dezakete ikasten duguna. Gurasoentzat esperientzia oso aberasgarria dela iruditzen zait.

Euskara txikitan ikastea garrantzitsua da eta

heldu hauek berandu hasi dira... noraino iritsi daitezke?

Inoiz ez da hasteko berandu. Egia da noski, gero eta goizago hastea hobea dela, baina Erreniegako taldea gaztea dela esan daiteke, ni naiz zaharrena, beraz... Euskara edo beste edozein hizkuntza ikasten hastea erabakitzen denean ez da mugarik jarri behar. Bakoitza iritsiko da proposatzen den mailara. Baina badakite horretarako lan egin behar dutela. Guk baliabideak jartzen dizkiegu baina esfortzua beraiena da. Edozein hizkuntza ikasteak sakrifizioa dakar.

Guraso gehiago animatzen al dituzu parte-hartzeraz?

Familiarentzat aberasgarria dela iruditzen zait. Nire aburuz ez da nahikoa semea edo alaba D erdian matrikulatzea eta kitto. Gurasoek ere egin behar dute esfortzu hori eta argi utzi euskara denon egin beharra dela; seme-alabek eskertu egiten dute eta asko gainera. Datorren ikasturtera begira, interesa duen edonor jar dadila Erreniega guraso elkartearekin harremanetan eta informazio guztia helaraziko zaio. Ez da beharrezkoa zerotik hastea, maila aurreratugoko taldeak ere egin daitezke.

Zizurren Kantuz-ek 2013rako entseguak eta irteerak programatu ditu

Euskaraz abestea eta giro ona gustuko badituzu, animatu eta hitzordu batera agertzea besterik ez duzu.

Entseguak

2013an entseguak izanen dira maiatzaren 7 eta 21ean; ekainaren 4 eta 25ean, eta irailaren 10ean.

Irteerak

Irteerak larunbatez izanen dira ia beti, eta eguerdiko 12:00etatik abiatuko dira Zizur Nagusiko udaletxe aurreko enparantzatik.

2013an, berriz, maiatzaren 11n, ekainaren 8an eta irailaren 14ean (festetan) izanen dira.

Los padres y madres del Colegio Erreniega también aprenden euskera en el centro

Un grupo de padres del Colegio Erreniega de Zizur Mayor lleva desde febrero asistiendo a un curso de iniciación al euskera. Este curso, que imparte el euskaltegi Zubiarte en el propio centro, se desarrolla durante seis horas a la semana. Los padres están poniendo todo el empeño en aprender a desenvolverse en una lengua que también han querido para sus hijos. "Al revés" ha hablado con Dulce Urzainki, de la APYMA Hots Gurasoak, y Karlos Lizoain, el profesor de Zubiarte.

Según Karlos, "todos tienen muchas ganas y trabajan muy bien. Procuran asistir a diario, y hacen todas las actividades que planteamos, con mucho ánimo. El avance de la clase es importante; cuando se parte prácticamente de cero, como es el caso, todos los días se aprenden un montón de cosas, y eso es muy motivador. Además, poco a poco, también pueden practicar con sus hijos-as gran parte de lo que aprendemos. Pienso que la experiencia para los padres y madres es muy enriquecedora".

Yolanda Gallo
Podólogo
Yolanda Gallo
C/Santa Cruz, 9 bajo
Tfno: 948 182 424
31180 ZIZUR MAYOR

 **EROSKI**
IRUÑA
contigo

HORARIO: lunes a jueves de 9,00 a 14,00 y de 16,30 a 19,30 horas; y viernes de 8,00 a 14,30 horas


MAPFRE
MEJORAMOS TU CALIDAD DE VIDA
TODOS LOS SERVICIOS DE UNA GRAN COMPAÑÍA A UN PASO DE SU CASA
Teléfono: 948 18 30 48 - Móvil: 626 935 017 - Fax: 948 18 38 89
E-mail: jgoicoa@mapfre.com - C/Zabalaina, 23 bajo - ZIZUR MAYOR